

**DONOSTIA HELBURU TURISTIKOAN OSTATU PLAZAK
ERRESERBATZEKO ON LINE SISTEMA BAT (ERRESERBA MOTORRA)
EZARTZEKO, SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA
SAREN WEBGUNEAN ESPAZIOAK LAGATZEKO ZERBITZUA
KONTRATATZEKO LIZITAZIOA**

ESLEIPENAREN EBAZPENA

2015eko abenduaren 4an Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SAREN (aurrerantzean, DONOSTIA TURISMOA) webgunean espazioak lagatzeko zerbitzua kontratatzeko lizitazioaren iragarkia argitaratu zen kontratugilearen profilean.

Proposamenak aurkezteko epea 2015eko abenduaren 24an bukatu zen eta 3 enpresak aurkeztu zuten beren proposamena: HOTELBEDS SLU, BOOKING.COM BV eta EQUINOCCIO VIAJES SA.

Langile teknikoek aurkeztutako eskaintzak aztertu eta baloratu zituzten, Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 14. Klausulan oinarrituta, eta 70 punturainoko puntuazioa eman zioten "Proposamen Teknikoari" eta 30 puntukoa "Proposamen Ekonomikoari".

Honela, langile teknikoek egin zuten balorazioaren ondorioz, puntuazioaren emaitza ondokoa izan zen:

Lizitzaileak	Proposamen en teknikoa 70 puntu	Proposamen ekonomikoa 30 puntu	Puntuak, guztira
1. Hotelbeds SLU	50	30	80
2. Booking.com BV	68	21,8	89,8
3. Equinoccio Viajes SA	40	15	55

Otsailaren 12an, lizitazio honen langileek BOOKING.COM BV-k aurkeztutako proposamena, osorik hartuta, ekonomikoki onuragarriena zela adierazi zuten, ondoko alderdiak aintzat hartuz:

- Kontratista eta erabiltzailearen arteko harremanari lotuta daudenak: optimizazioa, erreserba motorra gailu guztietan, mugikorretan barne,

erabilgarria izan dadin, eskaintzen dituen hizkuntzak eta erremintaren eskuragarritasuna eta informazioa, bezeroen arretako zerbitzuaren ezaugarriak eta arreta hori emateko hizkuntzak.

- Kontratista eta DONOSTIA TURISMOAren arteko harremanari lotuta daudenak: ezarpen-fasearen azalpen xehatua, bai eta bere iraupenaren adierazpena, zerbitzua erabilgarri dagoen arte; widget bidezko integrazio-aukera aurreratuak, interfazeaz gain. Google Analyticsen barruko integrazioaren adierazpen xehatua, egindako konbertsioen jarraipena barne. Widget, WebServices, AP, Jhson, XML eta antzeko hirugarrenetikiko integrazioaren sistema teknikoari buruzko dokumentu oso zehatzak.
- Kontratista eta ostatua eskaintzen dutenen arteko harremanari lotuta daudenak: Metodologiaren eta produktuak eguneratzeko mekanismoen azalpen oso xehatua. Merkaturatze-sistema eta -talderik hoberena.

Hori ikusita, eta BOOKING.COM BV-ri Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkez zezan eskatu eta gero eta aipatuak eskakizun hori behar bezala bete eta gero, 2016ko martxoaren 29an Kontratazio Organoak ondoko erabakia hartu zuen: Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko DONOSTIA TURISMOAren webgunean espazioak lagatzeko zerbitzuaren kontratua BOOKING.COM BV-ri esleitzea.

Nolanahi ere, 2016ko ekainaren 16an lizitazio honen Kontratazio Organoak ondoko erabakia hartu zuen: (i) BOOKING.COM BV-ren alde egindako Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko DONOSTIA TURISMOAren webgunean espazioak lagatzeko zerbitzuaren kontratuaren esleipena bertan behera uztea, BOOKING.COM BV-ren ardurapeko zioen ondorioz kontratua zehaztutako epearen barruan gauzatu ez zelako eta, ondorioz, bere proposamena erretiratu egin zuela interpreta zitekeelako; eta (ii), eskaintzen sailkapenean bigarren lekuan ezarritako lizitatzailari, hau da, HOTELBEDS, SLU-ri eskatzea lizitazioa arautzen duen Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkez zezan 10 egun balioduneko epearen barruan.

2016ko ekainaren 20an DONOSTIA TURISMOAk Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkezteko eskaria bidali zion HOTELBEDS, SLU-ri.

2016ko ekainaren 29an HOTELBEDS, SLU-k eskatutako dokumentazioa ez aurkezteko bere nahia adierazi zuen, une horretan tamaina handiko beste

proiektu batzuk eskuen artean zituela esanez eta kontratu honen eta aipatu proiektuen aldebereko gauzatzea ezinezkoa egiten zitzaiola argudiatuz.

Azkenik, Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkezteko 10 egun balioduneko epea amaituta, HOTELBEDS, SLU-k ez zuen inolako dokumenturik aurkeztu.

Gauzak horrela, 2016ko uztailaren 14an lizitazio honen Kontratazio Organoak ondoko erabakia hartu zuen: HOTELBEDS, SLU Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko DONOSTIA TURISMOAREN webgunean espazioak lagatzeko zerbitzuaren kontratuaren esleipenetik kanporatzea, honi uko egiten ziola ulertuta Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa ez aurkeztu eta gero; eta (ii), eskaintzen sailkapenean hurrengo postuan zegoen lizitatuari, hau da, EQUINOCCIO VIAJES SA-ri eskatzea lizitazioa arautzen duen Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkez zezan 10 egun balioduneko epearen barruan.

Uztailaren 15ean Kontratazio Organoak Ekonomia eta Administrazio Klausulen eta Baldintza Teknikoen Orriko 17. Klausulan zehaztutako dokumentazioa aurkez zezan eskatu dio EQUINOCCIO VIAJES SA-ri eta honek aipatu dokumentazioa epe barruan aurkeztu du.

Ondorioz, Kontratazio Organoak


ERABAKI DU

Lehena.- Donostia helburu turistikoan ostatu plazak erreserbatzeko on line sistema bat (erreserba motorra) ezartzeko DONOSTIA TURISMOAREN webgunean espazioak lagatzeko zerbitzuaren kontratua EQUINOCCIO VIAJES SA-ri esleitzea, merkaturatzaile ezberdinen bidez eginiko erreserba horien komisio osoaren % 5,5aren trukean, Booking.com BV-ren bidez eginiko horiek salbu, horien kasuan aipatu portzentajea % 4,5koa izango baita, kontratua gauzatu eta ondorengo bi urtetan. Kontratazio Organoak kontratua bi urtez gehienez luzatzeko eskubidea izango du.

Bigarrena.- Ebazpen hau Kontratugilearen Profilean argitara dadin, eta EQUINOCCIO VIAJES SA jakinaren gainean jar dadin agintzea.

Hirugarrena.- Kontratua EQUINOCCIO VIAJES SA-k ebazpen hau jaso eta ondorengo hamabost egun balioduneko epean gauzatu beharko da.

Donostian, 2016ko abuztuaren 5ean



Kontratazio Organoaren izenean
Eneko Goia